Urnietako udala

# 2021EKO MARTXOAREN 26KO TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO EZ-OHIKO BILKURAREN AKTA

# ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EN SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE MARZO DE 2021

**Akta zenbakia: 06/2021**
**Bilera eguna**: 2021-03-26
**Bilera mota:** ez-ohikoa
**Deialdia:** Lehenengoa
**Ordua:** 08:30- 08:37
**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia

**Bertaratutakoak:**

**Alkatea:**
Jorge Segurado Iriondo

**Zinegotziak:**
Mikel Pagola Tolosa
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Idazkaria:**
Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2021eko martxoaren 26an, goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 08:30etan, Jorge Segurado Iriondo alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gainditu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

**<u>GAI ZERRENDA</u>**

**1.- 2021eko martxoaren 18ko bileraren akta onartzea.**

**2.-. EGAPE DANTZA TALDEArekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0002.**

**3.- EPAE-Etxeberri Plazako auzokideen elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0003.**

**4.- POXTA ZAHAR urnietako gazte koadrilen elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0004.**

**5.- XOXOKA-GOIBURUko auzo elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0007.**

**Acta nº: 06/2021**
**Fecha**: 26-03-2021
**Tipo de reunión**: extraordinaria
**Convocatoria:** Primera
**Hora:** 08:30- 08:37
**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento

**Reunidos:**

**Alcalde:**
Jorge Segurado Iriondo

**Concejales:**
Mikel Pagola Tolosa
Luke Goñi Martínez
Agurtzane Mercader Ubillos
Ainara de Miguel Berasategui

**Secretario:**
Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 26 de marzo de 2021, siendo las 08:30 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Jorge Segurado Iriondo, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

**<u>ORDEN DEL DÍA</u>**

**1.- Aprobar el acta de la sesión de 18 de marzo de 2021.**

**2.-. Aprobación del convenio a firmar con EGAPE DANTZA TALDEA Kultur Elkartea. ESP2021SHIT0002.**

**3.- Aprobación del convenio a firmar con EPAE-Etxeberri Plazako auzokideen elkartea. ESP2021SHIT0003.**

**4.- Aprobación del convenio a firmar con POXTA ZAHAR urnietako gazte koadrilen elkartea. ESP2021SHIT0004.**

**5.- Aprobación del convenio a firmar con XOXOKA-GOIBURUko auzo elkartea. ESP2021SHIT0007.**

**6.- Xakea sustatzeko EGUZKIA aisialdiko elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0020.**

**6.- Aprobación del convenio a firmar con EGUZKIA asociación de Tiempo Libre para fomentar el ajedrez. ESP2021SHIT0020.**

**7.- XOXOKA MOTOR kirol elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0009.**

**7.- Aprobación del convenio a firmar con XOXOKA MOTOR kirol elkartea. ESP2021SHIT0009.**

**8.- Bestelakoak.**

**7.- Otros.**

*************************

**1.- 2021eko martxoaren 18ko bileraren akta onartzea.**

**1.- Aprobar el acta de la sesión de 18 de marzo de 2021.**

2021eko martxoaren 18ko akta irakurri ondoren, ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez honako hau

Tras la lectura del acta de la sesión del 18 de marzo de 2021 y realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad adopta el siguiente

**ERABAKITZEN DU**

**ACUERDO**

**Lehenengoa.-** 2021eko martxoaren 18ko akta onartzea.

**Primero.-** Aprobar el acta del 18 de marzo de 2021.

**2.-. EGAPE DANTZA TALDEArekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0002. (I. eranskina)**

**2.-. Aprobación del convenio a firmar con EGAPE DANTZA TALDEA Kultur Elkartea. ESP2021SHIT0002. (anexo I)**

Aurrekariak

Elkartea eta Urnietako Udalaren arteko elkarlana, nagusiki jarduera hauetan zehaztuko da:

- "Urnieta Dantzan" jaialdia.
- Gazte Festak eta Sanmiel jaietan dantza emanladiak.
- "Olentzero eta Mari Domingi badatoz".
- Udalak eskatzen dizkion ekitaldi protokolario eta omenaldietan dantza egitea.
- Urnietatik kanpoko dantzariekin harremanak eta trukeak, herritik kanpoko emanaldiak eta beste udalerri batzuetako taldeak Urnietara gonbidatzea.
- Herriko gazteen eta helduen artean, dantzan etengabeko prestakuntza sustatuko du, astero entseguak antolatuz.
- Musika eta dantzari lotutako beste jaduerak, baldin eta herritarren eskaera badago eta beste elkarteek ez badiote erantzuten, adibidez "Pandero Tailerra" helduentzat.

Antecedentes

La colaboración de la Asociación con Ayuntamiento de Urnieta se concret fundamentalmente en las siguientes actividad
- Festival "Urnieta Dantzan"
- Actuaciónes de danza en las Gazte Festa Sanmiel.
- "Olentzero eta Mari Domingi badatoz".
- Bailar en actos protocolarios y homenajes solicite el Ayuntamiento.
- Contactos con dantzaris de fuera de Urni intercambios y actuaciones fuera de la localida invitación a grupos de otros municipios a Urnie
- Formación continua de danza entre perso jóvenes y adultas del municipio, organizar ensayos semanales.
- Otras actividades relacionadas con la músic la danza, siempre que exista demanda ciudad y no sean atendidas por otras asociaciones, co el "taller de pandero" para personas adultas.

Zuzenbideko oinarriak

Kulturak pertsonen garapenean eta osasunean duen garrantziaz oharturik, eta kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen

Fundamentos de derecho

Dada la importancia de la cultura en el desarro y en la salud de las personas, y teniendo

apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dietela kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak eta jolas-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena,, Urnietako Udalak bere gain hartzen du udalerrian egiten diren edo toki-erakundeek antolatzen dituzten mota horretako jarduerak sustatzeko konpromisoa, zehazki, elkarte horrek nahi dituenak.

cuenta que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamiento la competencia para la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público y la competencia para la ordenación y gestión de actividades recreativas,, el Ayuntamiento de Urnieta asume el compromiso de fomentar las actividades de este tipo que se celebren en el municipio o sean organizadas por las entidades locales y en concreto, las que la mencionada Asociación quiera organizar.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu “sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a “los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko martxoaren 23an egindako irizpena.

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 23 de marzo de 2021.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

ERABAKIA

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

ACUERDO

Lehena. EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEArekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Primero.-Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Bigarrena. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Segundo.-Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Hirugarrena. lokala prekarioan lagatzea onartzea, erantsitako hitzarmen-proposamenean adierazitako baldintzetan

Tercero.-Aprobar la cesión en precario del local en las condiciones indicadas en la propuesta de convenio que se anexa.

Laugarrena. 6.300,00 euroko dirulaguntza ematea 1 0410.481.334.00.03 (2486) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Cuarto.-Aprobar la concesión de una subvención de 6.300,00euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0410.481.334.00.03 (2486), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Bosgarrena. EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEAri erabakia jakinaraztea eta sustapen

Quinto.-Notificar este acuerdo a EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA y trasladar el

eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**3.- EPAE-Etxeberri Plazako auzokideen elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0003. (II. eranskina)**

Aurrekariak
Elkarteak xedetzat du auzokideen artean elkarbizitza hobetzea eta giza eta kultur ekintzak sustatzea.
Horretarako ondorengo jarduerak eraman nahi ditu aurrera Urnietako udalerrian:
- Auzo bizitza dinamizatzeko ekimenen antolakuntza eta planifikazioa
- Inauterietako jaien barne jardueren antolakuntza.
- Gazte Jaien barne jardueren antolakuntza
- Etxeberri Plazako jaien antolakuntza
- San Miel jaien barne jardueren antolakuntza
- Kulturarteko jaiaren antolakuntza.
- Eguberritako ekitaldien antolakuntza.

Zuzenbideko oinarriak
Kulturak pertsonen garapenean eta osasunean duen garrantziaz oharturik, eta kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dietela kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak eta jolas-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena,, Urnietako Udalak bere gain hartzen du udalerrian egiten diren edo toki-erakundeek antolatzen dituzten mota horretako jarduerak sustatzeko konpromisoa, zehazki, elkarte horrek nahi dituenak.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu “sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”.

mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**3.- Aprobación del convenio a firmar con EPAE-Etxeberri Plazako auzokideen elkartea. ESP2021SHIT0003 (anexo II).**

Antecedentes
La Asociación tiene como finalidad la de mejorar la relación entre vecinos y promover actividades sociales y culturales.
Para ello desea desarrollar las siguientes actividades en el municipio de Urnieta:
-Organización y planificación de iniciativas para dinamizar la vida del barrio.
-Organización de actividades en Carnavales.
-Organización de actividades en las Gazte Festak.
- Organización de las fiestas de la Plaza Etxeberri.
-Organización de actividades en las fiesta de San Miguel.
-Organización de la fiesta multicultural
-Organización del actividades de Navidad.

Fundamentos de derecho
Dada la importancia de la cultura en el desarrollo y en la salud de las personas, y teniendo en cuenta que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamiento la competencia para la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público y la competencia para la ordenación y gestión de actividades recreativas, el Ayuntamiento de Urnieta asume el compromiso de fomentar las actividades de este tipo que se celebren en el municipio o sean organizadas por las entidades locales y en concreto, las que la mencionada Asociación quiera organizar.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a “los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko martxoaren 23an egindako irizpena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

ERABAKIA

Lehena. EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEArekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Bigarrena. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Hirugarrena. 3.600,00 euroko dirulaguntza ematea 1 0410.481.334.00.19 2021 (2868) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Laugarrena. EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEAri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 23 de marzo de 2021.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

ACUERDO

Primero**.** Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEA (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Segundo. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Tercero. Aprobar la concesión de una subvención de 3.600,00euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0410.481.334.00.19 2021 (2868), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Cuarto. Notificar este acuerdo a EPAE - ETXEBERRI PLAZAKO AUZOKIDEEN ELKARTEA y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**4.- POXTA ZAHAR urnietako gazte koadrilen elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0004. (III. eranskina)**

Aurrekariak
Elkarteak xedetzat duela jaien giroa hobetzea eta gazteei bideratutako ekintzak sustatzea.

Horretarako ondorengo jarduerak eraman nahi dituela aurrera Urnietako udalerrian:

- Kontzertuak, antzerki saioak, bertso saio, hitzaldi eta Euskal kultura sustatzeko bestelako jarduerak.
- Inauterietan, Gazte Festetan eta San Migel jaietan parte hartzea.
- Poxta Zahar Eguna eta San Silbestreko lasterketa

Zuzenbideko oinarriak
Kulturak pertsonen garapenean eta osasunean duen garrantziaz oharturik, eta kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Toki

**4.- Aprobación del convenio a firmar con POXTA ZAHAR urnietako gazte koadrilen elkartea. ESP2021SHIT0004.(anexo III)**

Antecedentes
La asociación tiene como finalidad la de mejorar el ambiente festivo y fomentar actividades dirigidas a la juventud.

Para ello desea desarrollar las siguientes actividades en el municipio de Urnieta:

-Conciertos, espéctaculos teatrales, de bertsolaris, conferencias y otras actividades de fomento de la cultura vasca.
-Participación en carnavales, Gazte Festak y fiestas de San Miguel
-Poxta Zahar Eguna y Carrera San Silbestre.

Fundamentos de derecho
Dada la importancia de la cultura en el desarrollo y en la salud de las personas, y teniendo en cuenta que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de **Régimen**

Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dietela kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak eta jolas-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena, Urnietako Udalak bere gain hartzen du udalerrian egiten diren edo toki-erakundeek antolatzen dituzten mota horretako jarduerak sustatzeko konpromisoa, zehazki, elkarte horrek nahi dituenak.

Local y la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamiento la competencia para la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público y la competencia para la ordenación y gestión de actividades recreativas, el Ayuntamiento de Urnieta asume el compromiso de fomentar las actividades de este tipo que se celebren en el municipio o sean organizadas por las entidades locales y en concreto, las que la mencionada Asociación quiera organizar.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu “sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a “los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

ERABAKIA

Lehena. POXTA ZAHAR URNIETAKO GAZTE KOADRILAKrekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Bigarrena. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Hirugarrena. Idiazabal 13 kaleko Gaztegunean dagoen gela eta San Juan 40eko biltegia lokala prekarioan lagatzea onartzea, erantsitako hitzarmen-proposamenean adierazitako baldintzetan

Laugarrena. 8.100,00 euroko dirulaguntza ematea 0410.481.334.00.08 2021 (2539) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Bosgarrena. POXTA ZAHAR URNIETAKO GAZTE KOADRILAKri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

ACUERDO

Primero. Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con POXTA ZAHAR URNIETAKO GAZTE KOADRILAK (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Segundo. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Tercero. Aprobar la cesión en precario del local que está en el Gaztegune Idiazabal 13 y el almacén que está en la calle San Juan 40 en las condiciones indicadas en la propuesta de convenio que se anexa.

Cuarto. Aprobar la concesión de una subvención de 8.100,00euros con cargo a la partida presupuestaria 0410.481.334.00.08 2021 (2539), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Quinto. Notificar este acuerdo a POXTA ZAHAR URNIETAKO GAZTE KOADRILAK y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**5.- XOXOKA-GOIBURUko auzo elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0007 (IV.eranskina).**

Aurrekariak
Elkarteak xedetzat duela bizilagunek eskatutako edozein aktibitate soziokultural bultzatzea eta sustatzea, dagozkien arazoez jabe daitezen eta hauek konpontzeko hartu beharreko neurrietan parte har dezaten bermatzea, auzoko bizilagunen artean harremanak, komunikazioa eta elkarbizitza bermatzea, auzoko bizilagun eta Udaletxearen arteko lotura izan arazoak bideratzea eta hobekuntza proiektuak garatzea eta herriko biztanle bezala, dagozkien esparruetan partehartze aktibo eta arduratsua bideratuko dituen moduak ezartzea.

Horretarako elkarteak ondorengo jarduerak eraman nahi dituela aurrera Urnietako udalerrian:
- Goiburu auzoan antolatzen diren jaien koordinazio eta prestaketa.
- Ikastaroak (yoga…) eta hitzaldiak antolatzea.
- Euskal herriko hiriburuak ezagutzera, burlatako igerilekura, Irisarri Land parkera eta ondoko mendietara irteerak.
- Kontzertu akustikoak eta bertso edo kantu afariak antolatzea.

Zuzenbideko oinarriak
Kulturak pertsonen garapenean eta osasunean duen garrantziaz oharturik, eta kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dietela kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak eta jolas-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena,, Urnietako Udalak bere gain hartzen du udalerrian egiten diren edo toki-erakundeek antolatzen dituzten mota horretako jarduerak sustatzeko konpromisoa, zehazki, elkarte horrek nahi dituenak.

Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu “sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako

**5.- Aprobación del convenio a firmar con XOXOKA-GOIBURUko auzo elkartea. ESP2021SHIT0007 (anexo IV).**

Antecedentes
La asociación tiene como finalidad la de impulsar y fomentar cualquier actividad sociocultural demandada por los vecinos y vecinas para que sean conscientes de los problemas existentes y participen en las medidas a adoptar para solucionarlos, garantizar las relaciones, la comunicación y la convivencia vecinal, canalizar los problemas y desarrollar proyectos de mejora que sirvan de nexo entre los vecinos y vecinas del barrio y establecer formas de participación activa y responsable en los ámbitos pertinentes como habitantes del municipio.

Para ello la Asociación desea desarrollar las siguientes actividades en el municipio de Urnieta:
-Coordinación y preparación de las fiestas que se organicen en el barrio Goiburu.
-Organización cursos (yoga…) y charlas.
-Salidas a conocer las capitales vascas, a la piscina de Burlata, a Irisarri Land y a los montes cercanos.
-Organización conciertos acústicos y cena de bersos o cantos.

Fundamentos de derecho
Dada la importancia de la cultura en el desarrollo y en la salud de las personas, y teniendo en cuenta que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamiento la competencia para la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público y la competencia para la ordenación y gestión de actividades recreativas,, el Ayuntamiento de Urnieta asume el compromiso de fomentar las actividades de este tipo que se celebren en el municipio o sean organizadas por las entidades locales y en concreto, las que la mencionada Asociación quiera organizar.

El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a “los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre

hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko martxoaren 23an egindako irizpena.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

ERABAKIA

Lehena. XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEArekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Bigarrena. Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Hirugarrena. Txusakako Eskola Zaharra lokala prekarioan lagatzea onartzea, erantsitako hitzarmen-proposamenean adierazitako baldintzetan

Laugarrena. 8.100,00 euroko dirulaguntza ematea 1 0410.481.334.00.13 2021 (2521) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Bosgarrena. XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEAri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

**6.- Xakea sustatzeko EGUZKIA aisialdiko elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0020. (V.eranskina).**

Aurrekariak
Asociación de Tiempo Libre EGUZKIA xedea da: Elkartea osatzen duten edo bertan parte hartzen duten pertsona guztien sustapena, gizarteratzea eta/edo entretenimendua, eta, bereziki, aisialdiaren erabilera sozial eta osasungarriak hobeto aprobetxatzea dakarten kirol-, kultura-, ongintza- eta gizarte-jarduerak,horretarako taldekideei xakeko lehiaketetan parte hartu ahal izateko lizentzien jaulkipenen laguntza emango zaio eta honetarako beharrezkoak diren baliabideak jarriz lagunduko dio

que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 23 de marzo de 2021.

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

ACUERDO

Primero. Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEA (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Segundo. Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Tercero. Aprobar la cesión en precario del local Txusakako Eskola Zaharra en las condiciones indicadas en la propuesta de convenio que se anexa.

Cuarto. Aprobar la concesión de una subvención de 8.100,00euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0410.481.334.00.13 2021 (2521), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Quinto. Notificar este acuerdo a XOXOKA-GOIBURU AUZO ELKARTEA y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**6.- Aprobación del convenio a firmar con EGUZKIA asociación de Tiempo Libre para fomentar el ajedrez. ESP2021SHIT0020. (anexo V).**

Antecedentes
La Asociación de tiempo Libre EGUZKIA tiene como finalidad:
Promoción, integración social y/o entretenimiento de todas las personas que la componen o participen en ella, y, en particular, todas aquellas actividades deportivas, culturales, benéficas, sociales, etc. Que lleven a un aprovechamiento mejor, usos sociales y saludables de los tiempos de ocio. Por ello, en este caso concreto, colaborará con EGUZKI

XAKE TALDEA en la emisión de licencias para poder competir en ajedrez.

Zuzenbideko oinarriak
Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu “sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”.

Fundamentos de derecho
El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a “los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales”.

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko martxoaren 23an egindako irizpena.

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 23 de marzo de 2021.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

Lehena.- CLUB DE TIEMPO LIBRE EGUZKIrekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Primero.- Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con CLUB DE TIEMPO LIBRE EGUZKI (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Bigarrena.- Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Segundo.- Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Hirugarrena.- Lokala prekarioan lagatzea onartzea, erantsitako hitzarmen-proposamenean adierazitako baldintzetan
Urbita 6 behea.

Tercero.- Aprobar la cesión en precario del local en las condiciones indicadas en la propuesta de convenio que se anexa.
Urbita 6 bajo

Laugarrena.- 300 euroko dirulaguntza ematea 1 0420.481.341.00.02 2021 (1504). aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz.

Cuarto.- Aprobar la concesión de una subvención de 300euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0420.481.341.00.02 2021 (1504)., indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Bosgarrena.- CLUB DE TIEMPO LIBRE EGUZKIri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Quinto.- Notificar este acuerdo a CLUB DE TIEMPO LIBRE EGUZKI y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**7.- XOXOKA MOTOR kirol elkartearekin sinatu beharreko hitzarmena onartzea. ESP2021SHIT0009. (VI.eranskina).**

**7.- Aprobación del convenio a firmar con XOXOKA MOTOR kirol elkartea. ESP2021SHIT0009.(Anexo VI)**

Aurrekariak
XOXOKA MOTOR KIROL KLUBAren xedea da Urnietan motor kirolen zaletasuna sustatzea,

Antecedentes
XOXOKA MOTOR KIROL KLUBA tiene como finalidad la de promocionar la afición de las

horretarako ekintza ezberdinak antolatuko dituelarik, Slalom-a, Auto Klasikoen lasterketa eta Bide segurtasunari buruzko hitzaldia eta honetarako beharrezkoak diren baliabideak jarriz lagunduko dio.

actividades del motor en Urnieta, para ello organizará una serie de actividades, Slalom, Travesia de Autos Clásicos y una actividad de sensibilización sobre seguridad vial, ayudará con los recursos necesarios para ello.

Zuzenbideko oinarriak

1. Azaroaren 8ko 9/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu "sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako hitzarmenak, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan".

Fundamentos de derecho

1. El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a "los convenios que celebren las entidades del sector público con personas físicas o jurídicas sujetas al derecho privado, siempre que su contenido no esté comprendido en el de los contratos regulados en esta Ley o en normas administrativas especiales".

Ikusirik Herritargoko Batzorde Informatzaileak 2021eko martxoaren 23an egindako irizpena.

Visto el dictamen de la Comisión Informativa de Ciudadanía del 23 de marzo de 2021.

Ezarritako lege tramitazioa jarraituta Tokiko Gobernu Batzarrak azaldu diren edo bertan dauden zinegotzien aho bateko adostasunarekin honako hau

Realizada la tramitación legalmente establecida la Junta de Gobierno Local por unanimidad de los concejales presentes o asistentes a la sesión adopta el siguiente

ERABAKIA

ACUERDO

Lehena.XOXOKA MOTOR KIROL KLUBArekin sinatu beharreko hitzarmen-proposamena onartzea (eranskina). Hitzarmen honen indarraldia 2024ko abenduaren 31a bitartekoa izango da.

Primero.Aprobar la propuesta de convenio a suscribir con XOXOKA MOTOR KIROL KLUBA (anexo). El convenio se mantendrá vigente hasta el 31 de diciembre de 2024.

Bigarrena.Alkate jaunari baimena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

Segundo.Autorizar al Sr. Alcalde para la firma de dicho convenio.

Hirugarrena.Lokala prekarioan lagatzea onartzea, erantsitako hitzarmen-proposamenean adierazitako baldintzetan

Tercero.Aprobar la cesión en precario del local en las condiciones indicadas en la propuesta de convenio que se anexa.

Laugarrena.4.500 euroko dirulaguntza ematea 1 0420.481.341.00.04 2021 (2750) aurrekontu partidaren kargura, hitzarmenean zehaztutako moduan ordainduko dela adieraziz

Cuarto. Aprobar la concesión de una subvención de 4.500euros con cargo a la partida presupuestaria 1 0420.481.341.00.04 2021 (2750), indicando que el pago de la misma se realizará en virtud de lo establecido en el convenio.

Bosgarrena.XOXOKA MOTOR KIROL KLUBAri erabakia jakinaraztea eta sustapen eta kontu-hartzailetza sailei helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Quinto.Notificar este acuerdo a XOXOKA MOTOR KIROL KLUBA y trasladar el mismo a los departamentos de promoción e intervención a los efectos oportunos.

**8.- Bestelakoak.**

**8.- Otros.**

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du Tokiko Gobernu

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde da por finalizada la presente

Batzar hau, eta nik, Urnietako idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Junta de Gobierno y se levanta la sesión, de lo que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López

Idazkaria

Sin.: Jorge Segurado Iriondo

Alkate-lehendakaria

I ERANSKINA /ANEXO I

**URNIETAKO UDALAREN ETA EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Urnieta, 2021ko martxoaren xa

**BILDURIK**

Batetik, JORGE SEGURADO IRIONDO jauna, Urnietako Alkate,

Bestetik: DAVID ROSCO JORGE Jauna. Nortasun Agiria 44.170.422A eta, ondorioetarako, helbidea Udaletxean, San Juan kalea z/g, Urnieta.

Eta bestetik, MARIA SANDONIS LASHERAS anderea, adinduna. Ondorio hauetako ETXEBERRI PLAZA 7, 4 G, 20130 URNIETA, 20130 URNIETA; eta Nortasun Agiria: 15979520-V, EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEAren Lehendakaria

Ni, Mateo Habibi Astigarraga López. jauna, Urnietako Udaleko Idazkaria, aurrean nagoela.

**PARTE-HARTZAILEAK**

JORGE SEGURADO IRIONDO jauna, Urnietako Udalaren izenean eta ordezkaritzan (San Juan, 5; IFK: P2007700D), Alkate gisa esku hartu du, eta Tokiko Gobernu Batzarrak …………an hartutako erabakiaren bidez eman zaio egintza honetarako ahalmena.

DAVID ROSCO JORGE jauna, KULTURNIETA, S.A.ren izenean eta hura ordezkatuz, Euskal Herriko Elkargoko Francisco-Ignacio Romera Pedrosa notarioaren aurrean 2019ko irailaren 20an egiletsitako akordio sozialak publiko egiteko eskrituran emandako ahalmenen arabera (protokolo-zenbakia: 1.392).

MARIA SANDONIS LASHERAS anderea, EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEAren izenean eta ordezkari gisa. EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribaturik dago, bere helbidea LIZARDI KALEA

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE URNIETA Y EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA**

Urnieta, xx de marzo de 2021

**REUNIDOS**

De una parte, Don JORGE SEGURADO IRIONDO, Alcalde de Urnieta

De otra parte, Don DAVID ROSCO JORGE, con D.N.I./N.I.F. número 44.170.422A, y domicilio a los efectos en la Casa Consistorial, San Juan Kalea s/n de Urnieta.

Y de otra parte, Doña MARIA SANDONIS LASHERAS mayor de edad, con domicilio a estos efectos en ETXEBERRI PLAZA 7, 4 G, 20130 URNIETA y con Documento Nacional de Identidad 15979520-V, Presidenta de EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA.

Ante mí, D. Mateo Habibi Astigarraga López Secretario del Ayuntamiento de Urnieta.

**INTERVIENEN**

Don JORGE SEGURADO IRIONDO en nombre y representación del Ayuntamiento de Urnieta, con domicilio en San Juan 5, y con CIF P2007700D, interviene en su condición de Alcalde y facultado para este acto por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha ……….

Don DAVID ROSCO JORGE en nombre y representación de KULTURNIETA, S.A., en virtud de las facultades conferidas en la escritura de elevación a público de acuerdos sociales otorgada ante el notario del Ilustre Colegio del País Vasco, Don Francisco- Ignacio Romera Pedrosa en fecha 20 de septiembre de 2019, con el número 1.392 de su protocolo.

Doña MARIA SANDONIS LASHERAS, en nombre y representación de EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA, entidad inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco, con domicilio en LIZARDI KALEA 5 20130 URNIETA y NIF G20936563. MARIA SANDONIS

5 20130 URNIETA da, eta bere IFK G20936563. MARIA SANDONIS LASHERAS jaunak/andereak Elkartearen lehendakari gisa hartu du parte, eta, ondorioz, bera da Elkartearen legezko ordezkaria, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko Legearen 15. artikuluaren arabera.

LASHERAS interviene en su condición de presidente, y, en consecuencia, como representante legal de la Asociación, al amparo del artículo 15 de la Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones de Euskadi.

Alderdiek dokumentu hau egiteko gaitasuna aitortu diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

Se reconocen mutuamente capacidad para otorgar este documento y a tal efecto,

**ADIERAZTEN DUTE**

1. EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA Elkartea (aurrerantzean Elkartea), bere Estatutuen arabera, xedetzat duela:
    2. Euskal kultura sustatu, bereziki herri dantzari dagokion arloan.
    3. Dantzarien jarraipena ziurtatzea, eta dantzari berriak sortzeko bideak egitea.
    4. Dantza jaialdiak antolatu.
    5. Udalaren edota beste herri elkartearen dantza-eskaerei erantzutea.
    6. Herriko festa eta kultur ekimenetan parte hartzea, giroa alaituz eta bertako giroa aberastuz.
    7. Urnietaz gainera beste dantza jaialdietan parte hartzea.

2. Elkarteak ondorengo jarduerak eraman nahi dituela aurrera Urnietako udalerrian:
    15. Euskal kultura eta bereziki euskal dantzak sustatuko ditu, ikuspegi garaikide batekin.
    16. Sarobe eta Urnietako plazetan dantza ikuskizunak antolatuko ditu, herriko festetan eta festetatik kanpo.
    17. Herriko gazteen eta helduen artean, dantzarien etengabeko prestakuntza sustatuko du, entseguak antolatuz. Helburu nagusia herrian dantzari berriak lortzea izanik, klaseak eskola

**EXPONEN**

1.Que EGAPE DANTZA TALDEA KULTUR ELKARTEA (en adelante, la Asociación), de acuerdo con sus Estatutos, tiene como finalidad la de:
    8. Fomentar la cultura vasca, especialmente en el ámbito de la danza popular.
    9. Asegurar la continuidad de las y los dantzaris y fomentar nuevos dantzaris
    10. Organizar festivales de danza.
    11. Atender las peticiones relativas a la danza del Ayuntamiento y/o de la otra asociaciones.
    12. Participar en las fiestas y actividades culturales locales, animando y enriqueciendo
    su ambiente
    13. Participación en otros festivales de danza además de Urnieta.

14. Que la Asociación desea desarrollar las siguientes actividades en el municipio de Urnieta:
    18. Fomentar la cultura vasca y en particular las danzas vascas, con una visión contemporánea.
    19. Organizar espectáculos de danza en Sarobe y las calle y plazas de Urnieta, dentro y fuera del calendario festivo.
    20. Promover la formación continua de dantzaris entre jóvenes y adultos del municipio, organizando ensayos. Siendo el objetivo principal la consecución de nuevos dantzaris en la localidad, las clases se impartirán de acuerdo con el calendario escolar.

egutegiarekin bat etorriz emango ditu.

21. Kulturak pertsonen garapenean eta osasunean duen garrantziaz oharturik, eta kontuan hartuta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak udalei esleitzen dietela kultura eta kultura-jarduerak antolatzeko eta sustatzeko eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak eta jolas-jarduerak antolatzeko eta kudeatzeko eskumena,, Urnietako Udalak bere gain hartzen du udalerrian egiten diren edo toki-erakundeek antolatzen dituzten mota horretako jarduerak sustatzeko konpromisoa, zehazki, elkarte horrek nahi dituenak.

3. Dada la importancia de la cultura en el desarrollo y en la salud de las personas, y teniendo en cuenta que la Ley 7/1985 de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local y la Ley 2/2016 de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuyen a los ayuntamiento la competencia para la ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público y la competencia para la ordenación y gestión de actividades recreativas,, el Ayuntamiento de Urnieta asume el compromiso de fomentar las actividades de este tipo que se celebren en el municipio o sean organizadas por las entidades locales y en concreto, las que la mencionada Asociación quiera organizar.

22. Elkarteak irabazi asmorik ez duenez, jarduera egitean ezingo du diru-irabazirik izan.

4. Que no teniendo la Asociación ánimo de lucro, no obtendrá beneficio económico alguno al realizar las actividades.

23. Jarduerek ez dute kontratu izaerarik bere edukia ez delako Sektore Publikoaren Kontratuen Legeak araututako kontratuetan sartzen. Azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 6.2 artikuluak bere aplikazio eremutik kanpo uzten ditu *“Administrazioak zuzenbide pribatuari lotutako pertsona fisiko edo juridikoekin egindako lankidetza hitzarmenak, berariazko erregulazio arauen arabera egindakoak hain zuzen, betiere horien helburua ez bada jasotzen Lege honetan edo arau administratibo berezietan araututako kontratuetan”.*

5.Que las actividades no tienen carácter de contrato porque su objeto no entra dentro de lo establecido en la Ley de Contratos del Sector Público. El artículo 6.2 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, excluye del ámbito de aplicación de la misma a “los convenios de colaboración que, con arreglo a las normas específicas que los regulan, celebre la Administración con personas físicas o jurídicas sujetas al Derecho Privado, siempre que su objeto no este comprendido en los contratos regulados en esta ley o en normas administrativas especiales”.

Agertutako alderdiek interes berbera dutenez, lankidetza-hitzarmen hau sinatu dute, ondoko klausula hauei jarraituz:

Que como consecuencia de este interés común las partes comparecientes otorgan un convenio de colaboración de conformidad con las siguientes

**KLAUSULAK**

**1. Xedea**

Lankidetza hitzarmen honen xedea da Urnietako Udalaren eta Elkartearen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea da.

**CLAUSULAS**

1. **Objeto**

El objeto de este convenio es fijar las condiciones de colaboración entre el ayuntamiento de Urnieta y la Asociación.

**2. Hitzarmenaren xede diren jarduerak**

Elkartea eta Urnietako Udalaren arteko elkarlana, nagusiki jarduera hauetan zehaztuko da:

- "Urnieta Dantzan" jaialdia.

- Gazte Festak eta Sanmiel jaietan dantza emanladiak.

- Olentzero eta Mari Domingi badatoz kalejira.

- Ekitaldi protokolario eta omenaldietan dantza egitea.

- Urnietatik kanpoko dantzariekin harremanak eta trukeak, herritik kanpoko emanaldiak eta beste udalerri batzuetako taldeak Urnietara gonbidatzea.

- Herriko gazteen eta helduen artean, dantzan etengabeko prestakuntza sustatuko du, astero entseguak antolatuz.

- Musika eta dantzari lotutako beste jaduerak, baldin eta herritarren eskaera badago, adibidez "Pandero Tailerra" helduentzat.

Jarduerak ondorengo baldintzetan eramango dira aurrera:

a) Jarduerak antolatzeko ardura osoa euren sustatzailearena da, kasu honetan Elkartearena, eta hori antolatzean, aplikagarri den araudian aurreikusitako baldintza guztiak eta beharrezko baimen guztiak (Urnietako Udalaren eta bestelako erakundeenak - Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza,…-).betetzeko betebeharra du.

b) Ekitaldi horien antolaketak dakartzan lan eta gestioak osotasunean Elkartearen esku geratuko dira.

c) Elkarteak bere emanaldiak iragartzeko erabiltzen dituen euskarrietan (kartelak, prentsa, sare sozialak, web,..) Urnietako Udalaren aipamena egingo da.

d) Elkartearen lankidetza Urnietako Udaleko Sustapen saileko arduradunek ikuskatuko dute.

e) Bizi dugun pandemia-egoerari dagokionez (covid19), Elkarteak Estatuko, autonomia-

2. **Actividades objeto de convenio**

La colaboración de la Asociación con el Ayuntamiento de Urnieta se concretará fundamentalmente en las siguientes actividades:

- Festival "Urnieta Dantzan"

- Actuaciónes de danza en las Gazte Festak y Sanmiel.

- Desfile Olentzero eta Mari Domingi badatoz.

- Bailar en actos protocolarios y homenajes.

- Contactos con dantzaris de fuera de Urnieta, intercambios y actuaciones fuera de la localidad e invitación a grupos de otros municipios a Urnieta.

- Formación continua de danza entre personas jóvenes y adultas del municipio, organizando ensayos semanales.

- Otras actividades relacionadas con la música y la danza, siempre que exista demanda ciudadana, como el "taller de pandero" para personas adultas.

Las actividades se desarrollarán en las siguientes condiciones:

a) La organización de las actividades es responsabilidad exclusiva de su promotor, en este caso la Asociación, obligándose la misma al cumplimiento de todos los requisitos previstos en la normativa aplicable, así como de cuantos permisos o autorizaciones (del Ayuntamiento de Urnieta y de otros organismos como Diputación Foral de Gipuzkoa, Gobierno Vasco, etc.) sean necesarios, para la celebración de las mismas.

b) Todo trabajo y gestión que suponga la organización de dichas actividades serán a cargo de la Asociación.

c) En los soportes informativos (carteles, prensa, redes sociales, web,..) de los actos organizados por la Asociación hará mención del Ayuntamiento de Urnieta.

d) La colaboración de la Asociación se efectuará bajo la supervisión de los responsables del Departamento de Promoción del Ayuntamiento de Urnieta.

e) En relación a la situación de pandemia (covid19) en la que nos encontramos, la

erkidegoko eta tokiko agintariek agindutako prebentzio-neurri guztiak betetzeko beharrezkoak diren protokoloak ezarriko ditu.

Asociación establecerá los protocolos necesarios para cumplir todas las medidas de prevención dictadas por las autoridades estatales, autonómicas y locales.

**3. Lagatzen den azpiegitura**

Udalak konpromisoa hartzen du Egape Dantza Taldeari Arte Eszenikoen Zentroko bi gelen (bat bigarren solairuan eta bestea lehenengo pisuan) erabilera prekarioan lagatzeko. Lagapena Kulturnieta SAk egingo du, eta I. eranskinean lagapenaren baldintzak zehazten dira.

Lokala udalari automatikoki itzultzeko kasuak:

- Utzitako helbururako erabiltzen ez denean.
-
- Erabilpena zuzena edo ez egokia ez denean.
- Udalak lokala beste zerbaitetarako behar duenean.
- Elkartea desegiten denean.

Bestalde, Sarobeko balleterako hiru barra eramangarri behin behinean Egape Dantza Taldeak Egape Ikastolan erabiltzea adosten da, beti ere hitzarmena amaitzerakoan edo lehenago udalak behar izanez gero, itzultzeko konpromisoarekin.

3. **Infraestructura objeto de cesión**

El Ayuntamiento se compromete a hacer efectiva la cesión de uso en precario a Egape Dantza Taldea de dos salas: una del primer piso (Areto 1) y la otra del segundo piso (Areto 2) del Centro de Artes Escénicas Sarobe. La cesión la efectuará Kulturnieta SA y en el anexo I se concretan las condiciones de la cesión.

Situaciones en las que el local pasa automáticamente para uso del Ayuntamiento:

- Cuando no se utilice para el objeto de la cesión.
- Cuando la utilización del local no es la correcta o adecuada.
- Cuando el Ayuntamiento lo requiere para otras actividades.
- Cuando la asociación desaparezca como tal.

Por otra parte, se acuerda que Egape Dantza Taldea pueda utilizar provisionalmente en Egape Ikastola tres barras de ballet portátiles de Sarobe, con el compromiso de devolverlas cuando finalice el convenio o anteriormente si el Ayuntamiento las necesitase.

**4. Diru-laguntza**

Urnietako Udalak diruz lagunduko du Elkartea hitzarmen honetan zehaztutako jarduerak garatzeko.

Hitzarmena sinatzen den urtean, diru laguntzaren zenbatekoa **6.300,00€-**koa izango da **1 0410.481.334.00.03 (2486)** aurrekontu partidaren kargura. Hurrengo ekitaldietan diru-laguntza emateko baldintza izango da udal-aurrekontuetan diru-laguntza izenduna esleitzea eta diru-laguntza emateko baldintzak betetzea.

Diru-laguntza hori udal-aurrekontuetan esleitu ahal izateko, Elkarteak hurrengo urteko **jardueren eta diru-sarrera/gastuen aurreikuspena** aurkeztu beharko du **uztailaren 31a baino lehen** (Udalak horretarako prestatutako inprimakien bidez).

4. **Subvención**

El Ayuntamiento de Urnieta subvencionará a la Asociación para el desarrollo de las actividades especificadas en este Convenio.

El importe de la subvención en el ejercicio en que se firma este convenio será de **6.300,00€** con cargo a la partida presupuestaria **1 0410.481.334.00.03 (2486).** La concesión de la subvención en ejercicios sucesivos estará condicionada a la adjudicación nominativa en los presupuestos municipales y al cumplimiento de los requisitos para su concesión.

Para que se pueda adjudicar dicha subvención en los presupuestos municipales, la Asociación deberá presentar **antes del 31 de julio la previsión de actividades y de ingresos-gastos del año siguiente** (mediante impresos preparados para ello por el Ayuntamiento).

**5. Ordainketa mota**

